



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA EGITEKO GIDA

KOORDINATZAILEA:

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaritza.
Hezkuntza sailburuordetza. Hezkuntza Saila.
Eusko Jaurlaritza

IRAKURKETA ERRAZEKO EGOKITZAPENA:

Lina Ugarte Sauret (Lectura Fácil Euskadi Irakurketa Erraza)
Nerea Aizpurua Iraola (Lectura Fácil Euskadi Irakurketa Erraza)
irakurketaerraza@gmail.com

DISEINUA: Oihana Pagola Mikeleitz (didart.eu)



Logotipo honek ziurtatzen du eskuartean duzun liburuak IFLAk
(International Federation of Library Associations and Institutions)
zehazturiko arauak betetzen dituela eta irakurketa zailtasunak dituzten
pertsontentzat material egokia dela.
Hau Lectura Fácil Euskadi Irakurketa Errazak ematen du.

ITURRIA: INTEF. "Plan digital de centro. Descripción y guía." intef.es, 2020,
https://intef.es/wp-content/uploads/2020/07/2020_0707_Plan-Digital-de-Centro_-INTEF.pdf.
Eskuratze-data: 2021 10 01.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA EGITEKO GIDA
by EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA SAILA is licensed under a
Creative Commons Attribution-ShareAlike 4.0 International License.

AURKIBIDEA

Zer da Ikastetxearen Proiektu Digitala?.....	4
--	---

Zertarako da gida hau?	5
------------------------------	---

IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA EGITEKO GIDA



1. Sarrera	7
------------------	---



2. Ikastetxearen egoeraren analisia	12
---	----



3. Helburuak	19
--------------------	----



4. Ekintzak	24
-------------------	----



5. Ekintzen eta epeen denboralizazioa	27
---	----



6. Proiektuaren ebaluazioa	31
----------------------------------	----

Ikastetxeen Proiektu Digitalen adibideak	34
--	----

1. eranskina: Balizko ekintzen orientazioa.....	35
---	----

2. eranskina: Ikastetxearen Proiektu Digitala idazteko txantiloia	47
---	----

Zer da Ikastetxearen Proiektu Digitala?

- Baliabide digitalen erabilera erraztu eta sustatzeko tresna bat da, zentroko irakas, ikas eta kudeaketa prozesuetan.
- Txertatu behar da Hezkuntza Proiektuan, Zuzendaritza Proiektuan eta Urteko Planean.
- Zentro osoaren ikuspegia izan behar du. Horrela, eskaintzen dituen aukerei probetxurik handiena aterako zaio.
- Hezkuntza komunitate osoaren proiektu partekatua izan behar da, koherentzia emateko eta teknologien erabilera gidatzeko.

Ikastetxeek potentzial digitala garatzeko erreferentzia da: Digitalki Eskudunak diren Hezkuntza Erakundeetarako Europako Markoa (DigCompOrg).

Marko hori *Furthering Innovative Education* azterlanaren parte da. Hemendik aurrera DigCompOrg markoa deituko zaio.

Marko hori erakunde hauek abiarazi dute:

- Europako Batzordeko Kultura Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiak
- Europako Batzordearen Ikerketa Zentro Bateratuak
- Prospektiba Teknologikoko Azterketen Institutuak.

DigCompOrg markoa lantzeko kontuan hartu eta mapatu dira:

- *OPEKA*, Finlandia
- *Microsoft SRT*, *School Mentor*, Norvegia
- *Vensters*, Holanda
- *Speak Up NRP*, AEB
- *HEInnovate*

Marko honekin lotuta, Europako Batzordeak garatu ditu:

- **SELFIE** autoebaluazio-tresna.
- Ikastetxearen autoebaluazio-txostena.

SELFIE tresna ikusteko:

<https://schools-go-digital.jrc.ec.europa.eu/about>

Zertarako da gida hau?

Dokumentu honen helburua da zentroei euren Ikastetxearen Proiektu Digitala diseinatzen laguntzea. Zentro bakoitzaren behar, egoera eta ezaugarrietara egokituko da.

Gida hau Ikastetxearen Proiektu Digitala idazteko oinarria da. Gidan agertzen da:

- proiektuaren atal bakoitzean zer idatzi behar den.
- euskarriak daude proiektuaren atal bakoitza idazten laguntzeko.
- atalen bukaeran agertzen diren kontrol zerrendak laguntza bat dira proiektua idazten ari diren pertsonentzat.

Guzti honekin ziur egon gaitezke proiektua idazteko urrats guztiak jarraitzen ari garela.

Hona hemen, Ikastetxearen Proiektu Digitala idazteko gidaren bertsio elektronikoa:



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

EGITEKO GIDA



1. Sarrera..... 7



2. Ikastetxearen egoeraren analisia 12



3. Helburuak 19



4. Ekintzak..... 24



5. Ekintzen eta epeen denboralizazioa..... 27



6. Proiektuaren ebaluazioa 31





1. Sarrera

ZER

Lehen atal honetan azaldu behar da ikastetxearen:

- testuingurua
- azpiegitura
- justifikazioa
- prozesua
- lantaldea.

Baita ere, Proiektu Digital honek ikastetxearen Hezkuntza Proiektuari nola eragiten dion.

NOLA

Aipatutako arloetan ikastetxearen datuak bildu eta oinarrizko dokumentuetara jota.

ZERGATIK

Oso garrantzitsua da aurkeztuko duzuen Proiektu Digitala ikastetxearen errealitatearekin eta beharrekin guztiz lotuta egotea.



1. Sarrera



DigCompEdu markoa

DigCompEdu Europar Batasunak ikastetxeetako profesionalentzako adostu duen markoa da.

Europako estatu kide askok uste dute hezitzaileek gaitasun digital espezifikoen multzo bat behar dutela.

Gaitasun horiei esker, teknologia digitalek hezkuntzan hobetzeko eta berritzeko duten potentziala aprobetxatuko dute. Hezitzaileen Gaitasun Digitalerako Europako Markoak (DigCompEdu) horri erantzuna ematen dio.

DigCompEdu: <https://publications.jrc.ec.europa.eu/repository/handle/JRC107466>

DigCompEdu euskaraz:
<https://hodeia.tolosaldealh.eus/s/QFWodxJo4pS7a8G#pdfviewer>



1. Sarrera

Testuingurua

Zentroaren oinarrizko datuak dira.
Atal honetan ikastetxearen deskripzio laburra egin daiteke.
Adibidez, kokapena, hezkuntza eskaintza,
famiilen maila sozio-ekonomikoa...

Azpiegitura

Gailuak, konektibitatea, plataforma eta zerbitzu digitalak, mantenua.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak jasoko ditu ikastetxearen konpetentzia digitala hobetzeko
garatuko diren jarduerak.
Baita, azken urteetan hezkuntza-prozesuak hobetzeko
ikastetxeetan ezarri eta egonkortu diren
hainbat baliabide, tresna eta zerbitzuak ere.

Beharrezkoa da:

- ikastetxea eraldaketa-unitate bezala ulertzea.
- bertako zuzendaritza taldeak bultzatzen dituen
hobekuntza planak diseinatzea.

Horretarako, DigCompOrg markoak laguntzen digu ikuspegi global batetik:

- gure ikastetxeen errealitatea aztertzeke.
- etorkizunerako ekintza planak diseinatzeko.

Gaur egun, gure gizartea are eta digitalizatuago dago.
Hortaz, ikastetxeek erantzun behar diete
gizartetik eta lan-merkatutik heltzen zaizkien eskaerei.
Ikastetxeek etorkizuneko hiritarrak ingurune oso digitalizatu batean
ondo moldatzeko prestatu behar dituzte.



1.

Sarrera

Gaur egun ezinbestekoa da teknologia erabiltzea ikastetxeko praktiketan:

- antolamendu-alderdietan
- irakas-ikas prozesuetan.

Plan honen bitartez lortu nahi ditugu:

- Ikastetxearen egoera ebaluatzea, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilerari dagokionez.
- Plan Digital batek hezkuntza-erakundearen estrategia digitala planifikatzeko duen potentziala aitortzea.
- Zentroa etengabe ikasten ari den erakunde bat bilakatzea. Horretarako, beharrezkoa da digitalki konpetentea izatea.
- Hezkuntza-komunitateko estamentu guztiak inplikatzea ikastetxeetako kultura digitala garatzeko.

Elaborazio prozesua eta lantaldea

Proiektuaren diseinuak behar du:

- ideia nagusiak jaso
- lehentasunak zehaztu
- planifikazio mailak ezarri, hala nola: programak, proiektuak, ekintzak...

Horiek markatuko dute ikastetxearen lan plana hobekuntza prozesuan zehar.

Hala ere, garrantzitsua da zuzendaritza taldearen parte-hartzea Proiektu Digitalaren diseinu eta ezartze prozesuan: alde batetik, ikuspegi globala emateko eta bestetik, baliabideak izendatzeko eta ardurak banatzeko.

Ikastetxearen Proiektu Digitalak:

- Gaur egun ikastetxea non dagoen ulertzen laguntzen du. Ikastetxearen egoeraren **analisi**a: autoebaluazioa eta hausnarketa.
- Ikastetxeak nora iritsi nahi duen zehazten du: **helburuak**.
- Ikastetxea egoera batetik bestera eramango duen bidea marrazten du: helburuak lortzeko **ekintzak** zehaztea.



1. Sarrera

Proiektu Digitalak Hezkuntza-Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Ikastetxearen Proiektu Digitala kokatu behar da
ikastetxeko testuinguru zabal batean.

Testuinguru hori Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan
eta Urteko Planean zehazten da.

Beharrezkoa da dokumentu horiek bat etortzea
eta guztiz osagarriak izatea.

Kontrol zerrenda

Sarrerako lanak		
1.		☐
2.		☐
3.		☐
4.		☐
5.		☐
6.		☐
7.		☐



2. Ikastetxearen egoeraren analisi

ZER

Bigarren atal honetan, ikastetxearen analisia egingo dugu Ikastetxeetako Gaitasun Digitalaren (DigCompOrg) arabera.

Horretarako, DigCompOrg markoan agertzen diren eremuak aztertuko dira.

NOLA

Lehenik, **SELFIE** tresnarekin auto-hausnarketa egingo dugu.

Ondoren, lortu dugun txostenaren arabera, **AMIA** (Aukerak, Mehatxuak, Indarguneak eta Ahuleziak) taula beteko dugu. Horrek gure ikastetxearen diagnosia emango digu.

ZERGATIK

Garrantzitsua da non gauden jakitea. Horrek emango dizkigu ildo eta jarraibideak gure Proiektu Digitala nola garatu nahi dugun zehazteko.



2. Analisia

Ikastetxearen egoeraren analisia kontuan hartuko ditu DigCompOrg markoak ezarritako 3 dimentsioak: pedagogikoa, teknologikoa eta antolamenduzkoa.

Eta marko honek ikastetxearen analisia proposatzen du 7 eremuetan oinarrituta:

1. Azpiegitura
2. Lidergoa eta Gobernantza
3. Irakaskuntza eta Ikaskuntza
4. Garapen Profesionala
5. Ebaluazioa
6. Edukiak eta Curriculuma
7. Laguntza eta Lankidetzaren Sareak

Ikastetxe bakoitzak bere ezaugarri espezifikoetara egokitutako beste elementu batzuk gehitu ahal izango ditu.

Laguntza gisa, ikastetxeei gomendatzen zaie **SELFIE** autoebaluaziorako tresna eta ikastetxearen autoebaluzio-txostena ere erabiltzea.

SELFIE tresna ikusteko:

<https://schools-go-digital.jrc.ec.europa.eu/about>

Webgune hau erabiltzea gomendatzen dugu:

[Digigunea](#)

Ikus dezagun zer den **SELFIE**.



2. Analisia



Zer da **SELFIE**?

SELFIE doako tresna bat da ikastetxeei laguntzeko teknologia digitalak nola erabiltzen dituzten pentsatzen, eta horrela ikaskuntza eraginkorra eta berritzailea lortzeko.

Digitalki Eskudunak diren Hezkuntza-erakundeentzako DigCompOrg markoa kontuan hartuta, **SELFIE**k lagundu egiten du hauetan:

- zer alderdi hobetu behar diren.
- zer alderdi nabarmentzen diren.

SELFIE erabiltzen duen ikastetxeak lortuko du:

- Teknologia digitalen erabilerari buruzko puntuaren argazki bat. Horretarako, kontuan hartu behar dira irakasleen, ikasleen eta zuzendaritza-taldearen iritziak.
- Balizko hobekuntza-eremuei buruzko elkarrizketa irekitzea, ikastetxearen barruan egin den auto-hausnarketa prozesu horri esker.
- Denboran zehar lortzen dituzten aurrerapenen jarraipena egitea.

SELFIE gaur egun eskuragarri dago Europar Batasuneko 24 hizkuntza ofizialetan eta baita [euskaraz](#) ere.

SELFIEk modu anonimoan iritziak biltzen ditu. Horretarako, galdera eta enuntziatu laburrak eta balorazio-eskala sinple bat erabiltzen dira. Enuntziatuek kontuan hartzen dituzte eremu hauek: lidergoa, azpiegiturak, irakasleen prestakuntza eta ikasleen gaitasun digitalak.

Informazio horretan oinarrituta **SELFIE** txostena sortzen du.

SELFIE irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako teknologia digitalen erabileran ikastetxearen indarguneei eta ahulguneei buruzko txostena da.

SELFIE tresna ikusteko:

<https://education.ec.europa.eu/self-reflection-tools/schools-go-digital>



2. Analisia

Ikastetxeko egoera zehatzagoa lortzeko ahalik eta ikastetxeko pertsona gehienek parte hartu behar dute.

Emitza horiek lagungarriak izan daitezke ikastetxea zein puntutan dagoen ulertzeko. Eta hortik, teknologien erabilerari buruzko elkarrizketa bat hasteko eta ikastetxerako ekintza-plan bat garatzeko.

Gainera, emaitzak ez dira partekatzen. Ikastetxe bakoitzak erabakiko du partekatzea edo ez.

Azkenik, **SELFIE** aurrerago erabil daiteke egindako aurrerapenak ebaluatzeko eta ekintza-plana zehazteko.

Horrela, **SELFIE** txostenak gure hezkuntza-erakundeen informazioa eman diezaguke:

- digitalizatzearen arloko indargune eta ahulguneak.
- digitalizazio horrek ikasleen ikaskuntza hobetzen nola laguntzen duen.

SELFIEz gain, Euskal Autonomia Erkidegoan beste tresna batzuk ere garatu dira, gaitasun digitalari buruzko analisiak eta baliabideak garatzeko. Horien artean daude:

- **IKANOS metodologia:** <https://ikanos.eus/eu/proceso-ikanos/>
- **Hezkuntza Saileko IKT Heldutasun Eredua:** <http://iktheldutasuna.berritzegunenagusia.eus/zer-da/>



2. Analisia

SELFIE txostenetik abiatuta, zentroak **AMIA** azterketa sortuko du. Horrek lagunduko dio egoerari buruz hausnartzen eta Ikastetxearen Plan Digitala egiten helburuen eta jarduketaren arabera.

AMIA (Aukerak, Mehatxuak, Indarguneak eta Ahuleziak)

Enpresa mundutik datorren tresna bat da. Tresna honek kudeaketa-estrategiak erabakitzen laguntzen du. Barne eta kanpo-faktoreen alderdi positibo eta negatiboak aztertzen ditu.

- **Barne-faktoreak:** Indarguneak eta Ahuleziak dira.
- **Kanpo-faktoreak:** Aukerak eta Mehatxuak dira.

Faktore hauen azterketa egokia eginez gero, kudeaketa estrategia posibleak bidera daitezke. Adibidez:

1. **Eraso-estrategia:** Indarguneak + Aukerak
2. **Birbideratze-estrategia:** Aukerak + Ahuleziak
3. **Defentsa-estrategia:** Indarguneak + Mehatxuak
4. **Biziraupen-estrategia:** Ahuleziak + Mehatxuak

Ikastetxe bakoitzaren egoeraren arabera, aldian-aldian ikastetxearen proiektuarentzako egokien izango den estrategia marka daiteke.

AMIA analisia

FAKTORE POSITIBOAK	BARNE-FAKTOREAK		FAKTORE NEGATIBOAK
	Indarguneak	Ahuleziak	
	1.	1.	
	2.	2.	
	3.	3.	
	...	...	
	Aukerak	Mehatxuak	
	1.	1.	
	2.	2.	
	3.	3.	
	...	...	
KANPO-FAKTOREAK			



2. Analisia



2.

Analisia

Kontrol zerrenda

Egoeraren analisirako lanak		
1.		☐
2.		☐
3.		☐
4.		☐
5.		☐
6.		☐
7.		☐



3. Helburuak

ZER

SELFIE eta **AMIA** bete ondoren,
ikastetxearen diagnosia izango dugu.

Non gauden badakigu.
Orain nora joango gara?

Gure ikastetxearen helburuak idatziko ditugu,
ikastetxearen gaitasun digitala hobetzeko
eta DigCompOrg markora egokitzeke.

NOLA

Helburuak izan behar dira:

- espezifikoak
- neurtu daitezkeenak
- gure aukeren barruan daudenak.
- epe motz edo ertainean lortu daitezkeenak.

ZERGATIK

Ikastetxeko errealitatetik abiatu
eta gure errealitatera egokituko den proiektua delako.




3. Helburuak

DigCompOrg markoa

DigCompOrg markoak 7 eremu markatzen ditu eta gure ikastetxeak denak modu egokian bete behar ditu.

Gainera, gure erakundeari egokitutako azpi-aztergai espezifikoak txertatzeko aukera ematen digu, ikastetxe bakoitzak **SELFIE** tresnan gure kabuz gehi genitzakeen itemei esker.



ITURRIA: Easo Politeknikoa LHII, LANEKI Elkartea eta TKNIKA.

Lanbide Heziketako Sailburuordetza – Eusko Jaurlaritza,

<https://tknika.eus/eu/cont/materiales/aro-digitalean-ikaskuntza-eraginkorra-sustatzen/> (2016)

DigCompOrg ingelesez: <https://ec.europa.eu/jrc/en/digcomporg>

DigCompOrg euskaraz: <https://digigunea.euskadi.eus/eu/digcomporg>

DigCompOrg gaztelaraz: <http://educalab.es/intef/digcomp/digcomporg>

Helburuak



3. Helburuak

Helburuak ikastetxearen egoeratik abiatuta formulatuko dira.

Ikastetxearen egoera aztertzerakoan ez da ahaztu behar ikastetxeak egin duen ibilbidea digitalizazioaren esparruan.

Adibidez: Eskola 2.0, IKT Heldutasun Eredua, Kontingentzia plana, Sare Hezkuntza eta STEAM proiektua ...

IKT batzordeak egin beharko luke:

- datu horiek guztiak aztertzeko lana
- ekintza-planaren diseinua.

Baita ere ezinbestekoa da zuzendaritza-taldeko kideen parte hartzea.

Horrela, jarraitzen den prozesua eta lortzen diren emaitzak elkarlanaren fruitua izango dira.

Horregatik, azken emaitza errealistagoa, bideragarriagoa eta hezkuntza-komunitate osoak onartzeko modukoa izango da.

Diagnosia egin eta hobetu beharreko arloak identifikatu ondoren, proiektuko ekintzen diseinurako urrats hauek eman beharko dira:

- Lortu nahi diren helburuak zehaztea.
Helburuak izan behar dira:
 - **Espezifikoak:** ahalik eta zehatzenak eta erraz ulertzeko modukoak izan behar dute.
 - **Neurgarriak:** kuantifikatu daitezkeen mugarriei erantzun behar diete. Helburu bat neurgarria ez bada, ez dugu jakingo noiz lortu dugun.
 - **Lorgarriak:** errealistak izan behar dute.
 - **Denboran zehaztuak:** erraz identifikatu ahal izango ditugu etapa eta mugarri guztiak.
- Helburuak lortu diren ala ez ebaluatzeko aukera emango duten adierazleak definitu behar dira.
Adierazleek zenbakizko eskalen arabekoak izan behar dute.



3. Helburuak

Helburuak DigCompOrg markoarekin lotuko dira.
Horretarako, DigCompOrg markoan zehazten diren
7 eremuak zerrendatuko ditugu:

1. Azpiegitura teknologikoa
2. Lidergoa eta gobernantza
3. Irakaskuntza eta ikaskuntza
4. Garapen profesionala
5. Ebaluazioa
6. Edukiak eta curriculum
7. Laguntza eta lankidetzaren sareak

Proiektuaren helburuak arlo bakoitzean
zehazten diren ekintzak garatuta lortuko dira.
Horregatik, abian jarriko diren ekintzen deskribapen zehatza egingo da.
Hau da, ondo definituko dira:

- baliabideak
- inplikaturak egongo diren pertsonak
- arduradunak
- prozesua modu koherentean garatzeko kronograma bat.

Gainera:

- Helburuak aldi jakin baterako zehaztuko dira.
Ahal bada, ikasturterako edo urte askotako plan baten esparruan
eta ikastetxeko koordinazio pedagogikorako organoekin lankidetzan.
- Proiektuaren funtsezko helburu bat izan behar da
eten digitalari aurre egiteko neurriak ezartzea.

Kontrol zerrenda



3.

Helburuak

Helburuetarako lanak		
1.		☐
2.		☐
3.		☐
4.		☐
5.		☐
6.		☐
7.		☐



4. Ekintzak

ZER

Atal honetan helburuak lortzeko ekintzak idatziko ditugu.

NOLA

DigCompOrg markoaren arlo bakoitzean egiten diren ekintzetan idatziko ditugu:

- agenteak
- prozedurak
- baliabideak
- lorpen-adierazleak.

Horretarako Ekintzen orientazio taula erabili dezakegu.

ZERGATIK

Helburuak lortzeko ekintza horiek gauzatu behar direlako, proiektua aurrera eramateko.

Ekintzak adostuko dira ikastetxeak definitutako helburuak lortzeko.



4. Ekintzak

Ekintza horiek zehazterakoan hauek hartuko dira kontuan, gutxienez:

- Inplikatura egongo diren **agenteak**.
- Aurreikusten diren **prozedurak**.
- Beharko diren **baliabideak**.
- **Lorpen-adierazleak**.

Ekintzak kokatuko dira DigCompOrg markoak zehazten dituen eremuen inguruan:

- 1. Azpiegitura:** Ikastetxeak dituen baliabideak aztertuko dira: baliabide teknologikoak, konektibitatea, plataforma eta zerbitzu digitalak, mantenuak... Kontuan hartuko dira ere, ikasketa prozesuan erabiltzeko familiek edo ikasleek etxean dituzten baliabide digitalak. Adibidez, gailuak eta konektibitatea...
- 2. Lidergoa eta gobernantza:** ikastetxearen neurriak eta protokoloak. Hau da, informazioa, komunikazioa, IKTen erabilera pedagogikoa, Antolamendu alderdiak: espazioak eta ordutegiak, hezkuntza-komunitateko partaideen lanak eta ardurak...
- 3. Ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak:** metodologia eta estrategia didaktikoak, ikasleen kompetentzia digitalaren garapenaren planifikazioa eta lotutako oinarritzko kompetentzien planifikazioa...
- 4. Garapen profesionala:** irakasleen kompetentzia digitalaren garapen osoa, Proiektu Digitalean zehaztutakoak garatu ahal izateko.
- 5. Edukiak:** irisgarritasuna eta kalitate-irizpideak, Hezkuntza-Baliabide Irekiak, ikasketa mailak...
- 6. Ebaluazioa:** ebaluatu beharreko alderdiak, lorpen irizpideak eta adierazleak, ebaluatzeko estrategiak, tresnak...
- 7. Laguntza-sareak eta lankidetzak:** irakasleen eta ikastetxeen sareak bultzatzea edo indartzea, familien formazioa eta aholkularitza, inguruko erakundeekin elkarlanean jarduteko mekanismoak eta ekintzak...

Honen inguruko informazio gehiagorako ikus



1. Eranskina: Balizko ekintzen orientazioak



4.

Ekintzak

Kontrol zerrenda

Ekintzarako lanak		
1.		☐
2.		☐
3.		☐
4.		☐
5.		☐
6.		☐
7.		☐



5. Ekintzen eta epeen denboralizazioa

ZER

Ekintzak gauzatzeko denboralizazioa idatziko dugu hauekin:

- ekintzak
- baliabideak
- ahalegina
- eragileak
- denbora-esparrua
- epea.

NOLA

Taula baten bidez.

ZERGATIK

Egin behar den lana zein den jakiteko eta helburuak lehenesteko.




5.

Denbormalizazioa

Lehentasunak planifikatzeko matrizea

Une jakin batean, sistema bezala balio du eskuartean ditugun ekintzak aukeratu, lehenetsi eta antolatzeko.

Proiektu Digitalaren ekintzetan arduradunen tokian jartzea eta matrize hau betetzea egokia izan daiteke ikastetxearen jarduera garrantzitsu eta egingarriak aukeratzeko. Baita ekintzen plangintza egiteko ere.



Ekintzen eta epeen denboralizazioa



5.

Denboralizazioa

Ikastetxearen Proiektu Digitalaren azken atalean jasoko dira:

- Egin beharreko ekintzak.
- Beharrezko baliabideak, hau da, giza baliabideak, baliabide materialak eta baliabide ekonomikoak.
- Behar duten ahalegina, hau da, epe ertain edo luzera heltzeko modukoak diren ala ez.
- Inplikaturako eragileak.
- Denbora-esparrua ekintza bakoitzerako.
- Ekintza horiek gauzatzeko behar den epea.
- Helburuak eta adierazleak.

Aurreko guztiek lorpen-maila ezagutzea ahalbideratuko digute.

Plangintzak ikastetxearen digitalizazio-helburuak lortzeko beharrezkoak diren mugarriak zehaztuko ditu.

Baliagarria izango da jardueren bilakaera gidatzeko, egiaztatzeko eta bistaratzeko.

Epeak ezartzerakoan kontuan hartu behar dira baita ere:

- Garrantzitsua da arrazoizko epe batzuk planifikatzea, hasitako ekintzek erakundean benetan eragina izan dezaten.
- Jarduerak une bakoitzean dakarten lan inplizitua kontuan hartu behar da eta elkarren mendeko diren jardueren arteko elkarrekintza errespetatu behar da.
- Epeen plangintzak malgua izan behar du ikastetxearen beharretara egokitzeko.



5.

Denbormalizazioa

Kontrol zerrenda

Denbormalizazioko lanen kontrol zerrenda		
1.		☐
2.		☐
3.		☐
4.		☐
5.		☐
6.		☐
7.		☐



6. Proiektuaren ebaluazioa

ZER

Azken atalean, proiektuaren ebaluazioa egingo dugu.
Ekintzak eta helburuak ebaluatuko ditugu.
Noiz, nola, eta nork egingo dituen finkatuko dugu.

NOLA

Erabakiko dugu proiektuaren ebaluazioa
noiz, nola eta nork egingo duen.

Taula batean, idatziko ditugu helburuak eta adierazleak.
Ondoren betetze maila.

Bukaeran, idatziko ditugu hobetzeko proposamenak.

ZERGATIK

Helburuak bete diren eta helburuen betetze maila lortu den jakiteko.
Modu horretan, hurrengo ikasturterako ekintza plana egingo dugu.



6.

Ebaluazioa

PDCA zikloa

PDCA zikloaren izena ingelesezik dator.

Zikloa osatzen duten lau faseen izenak dira: **Plan-Do-Check-Act**.

Walter A. Shewhart estatubatuar ingeniari eta estatistikariak asmatu zuen.


Honi Deming ziklo ere esaten diogu, William Edwards Demingen omenez.

Deming Unibertsitateko irakasle estatubatuarra izan zen eta Japoniaren garapenean eta hazkundean jardun zuen Bigarren Mundu gerraren ostean.

PDCA modu sistematikoan zikloa planifikatzea, egitea, egiaztatzea eta egokitzea da:

- **Planifikatzea:** Plangintza egitea, hau da, erabakitzea zer eta nola egin behar dugun bezeroa pozik uzteko.
- **Egitea:** hau da, plangintzari jarraitzea, elkarren artean harremana duten eta emaitza jakin bat helburu duten prozesuak egitea.
- **Egiaztatzea:** jardueraren garapena eta emaitza egite eta datuen bidez egiaztatzea.
- **Egokitzea:** ondorioak ateratzea eta plangintza bat egiteko erabiltzea, akatsak zuzentzeko, baliabideak hobeto erabiltzeko eta emaitza hobeak izateko.

PDCA zikloa



Kontrol zerrenda

Ebaluaziorako lanak		
1.		☐
2.		☐
3.		☐
4.		☐
5.		☐
6.		☐
7.		☐



6. Ebaluazioa

Ikastetxeen Proiektu Digitalen adibideak



Bartzelonako Escola Ramón y Cajal (LH)



Kataluniako eredu fiktizioa (DBH)



Botikazar BHI, Zentroko Plan Digitala



Botikazar BHI Ekintza plana (DBH)



DIGIGUNEAn gida honen bertsio elektronikoa ikus daiteke:



1. eranskina:

Balizko ekintzen orientazioa



1. Azpiegitura teknologikoa

Funtsezkoa da azpiegiturek:

- praktikak berriztea.
- ikasteko espazio fisiko eta birtualen mugak zabaltzea.

Ikastetxeak prozesuen modernizazioa landu behar du ikasketa-erakundeak hobetzeko.

Garapen hori mantentzeko beharrezkoa da zerbitzu digitalen sare nagusi fidagarri, seguru eta eskalagarri bat egotea.

Azpiegitura teknologikoen inguruko neurriak dira:

Baliabide teknologikoak

- Zentroak teknologien erabilera onargarrirako politika bat du.
- Gela digitalizatuak ditu.
- Beharrezko baliabide teknologikoen eskuragarritasuna eta irisgarritasuna bermatzen da irakasle eta ikasleentzat.
- Ikasleek ordenagailu eta gailu mugikorrak dituzte, banaka sartzeko konfigurazio espezifikoekin.
- Biltegi bat du, baliabide didaktiko eta dokumentu guztiekin. Biltegia irakasle eta ikasleentzat eskuragarri dago. Biltegiko material horiek maila eta arloko ondo antolatuta daude. Unitate didaktikoak garatuta ditu Ikasteko Ingurune Birtual (IBB) baten barruan.
- Ikasle eta irakasleek gela birtualak erabiltzen dituzte.

Baliabideen antolakuntza

- Plan bat du, dispositiboek dituzten arazo teknikoak konpontzeko.
- Inbentario bat du dispositiboekin: tabletak, eramangarriak, bestelako material didaktikoak...
- Eten digitala arintzeko neurriak hartzen ditu.
Adibidez, laguntza ekonomikoak, gailuak edukitzea maileguan uzteko...
- Hezkuntza-jarduera sekuentziatuak ditu ziber-segurtasunaren inguruan.

Teknologiaren erabilera

- Akordioak ditu informazio digitalaren, jabetza intelektualaren eskubideen eta erabilera lizentzien erabilerari lotutako printzipio legal eta etikoak aplikatzeari buruz.
Horiek guztiak hezkuntza-komunitatearekin partekatzen ditu.
- Jasangarritasun-plan bat du, gailu zaharkituak modu seguruan kentzeko, ingurumena errespetatuz.
- Protokoloa du datu akademiko edo pribatuak modu seguruan tratatzeko, datuak babesteko legean oinarritua.



2. Lidergoa eta gobernantza

Beharrezkoa da zuzendaritza-eredu bat ezartzea konpetentzia digitala sustatzeko.

Horretarako, ikastetxeko eragile guztien erantzukizuna sustatuko da ulermenetik eta konpromiso partekatutik.

Funtsezkoa da teknologia ikaskuntza prozesua sustatzeko hausnarketa, plangintza eta norabide egokiak hautatzea, ez inprobisatzea.

Ikastetxearen Proiektu Digitala

- Bat dator beste dokumentu instituzionalekin: Hezkuntza proiektua, Araudia eta Jarduera Antolakuntza (AJA), prestakuntza-plana, programazio didaktikoak...
- Labur eta argi aipatu behar dira hauek:
 - Interneten erabilera
 - Teknologiaren erabilerak osasunean izan ditzakeen ondorioak
 - Segurtasuna Interneten nabigatzerakoan
 - Softwarearen erabilera zuzena...

Ikastetxeko politika teknologikoak zehaztu eta hezkuntza-komunitate osoarekin partekatu behar dira.

- Espazio eta hornikuntza teknologikoen antolaketa aurreikusten da. Adibidez, nola erabiliko diren espazioak, berriztuko diren gailuak...
- Aurreikusten da zer gailu eta aplikazio erabiliko diren irakaskuntzan: mailaka, etapaka edo arloka antolaturik.
- Ondo jasotzen dira behar diren langileak eta espezialitateak teknologien erabilera-plana modu egokian ezartzeko.
- IKT batzorde bat dago eta egiten ditu:
 - Proiektu Digitalaren garapena koordinatu eta dinamizatzea.
 - Irakasleen prestakuntza-plana bideratzea.

Batzorde honetan, zuzendaritzaren ordezkari bat dago.

- Laguntza proiektu bat sortu da, hezkuntza-laguntza behar duten ikasleentzat.
 - Proiektu digitala modu sistematikoan ebaluatzen da eta hobekuntza bideratzen da.
 - Prestakuntza Plana du irakaslerian gaitasun digitala garatzeko helburuarekin. IKT koordinatzaileak eta IKT batzordeak:
 - prestakuntza dinamizatu eta koordinatuko du.
 - helburu nagusiak eta lehentasunak hautatuko ditu.
- Urteko Planean txertatuta dago beste plan hauekin batera: Hobekuntza Plana, IKT Plana, Hizkuntza Plana.
- Teknologia digitalak erabiltzen dira ikas-egoera errealetan eta testuinguruan kokatuak.



3. Irakaskuntza eta ikaskuntza

Ikastetxeak dinamika eta mekanismo irekiak antolatu behar ditu:

- sareko eduki irekiak sortzeko eta erabiltzeko.
- eduki horiek bistaratzeko espazioak sortzeko.
- erabilera sustatzeko ekintzak egiteko.
- ikastetxe barruan eta kanpoan partekatzeko.

Honen helburua da ikastetxean garatutako produktuei balioa ematea. Produktu horiek izanik tresna eta gaitasun teknologiko berriak erabiltzen dituzten produktu analogikoak (muralak) eta digitalak.

Garrantzitsua da ere, beste zentro batzuek partekatu dituzten baliabideen erabilera sustatzea.

Adibidez, edukiak trukatzeko programa instituzional batean sartzea, gordailu publiko handiagoa edo gordailu propioa sortzen laguntzeko. Neurri horiek lagun dezakete eduki digitalen eta hezkuntza-baliabide irekien erabilera sustatzen.

Irakaskuntza eta ikaskuntza inguruko neurriak dira:

- Ikaskuntza Ingurune Birtualak ikas egoerak garatuak ditu.
- Irakasleek egiten dute programazioen jarraipena koaderno digitalaren bidez.
- Programazio horietan:
 - gaitasun digitalak aipatzen dira.
 - baliabide digitalak zehazten dira.
- Konpetentzia digitala ebaluatzeko irizpideak zehazten dira, indarrean dagoen hezkuntza-markoan oinarrituta.
- Arloek eta sailek ikastetxeak zehaztutako baliabide digitalak erabiltzen dituzte.
- Ikasleek HBI (Hezkuntza baliabide irekiak) motako edukiak ekoizten dituzte, ikastetxeak zehaztutako baliabideen eta gaitasunen arabera.

- Ikasleek eta irakasleek gordailu komuna partekatzen dute ekoizpenak katalogatzeko.
- Ikastetxeak hezkuntza-jarduera sekuentziatuak garatzeko gai hauek kontuan hartzen ditu:
 - segurtasuna
 - teknologia digitalak erabiltzearen arriskuak
 - portaera arduratsua...



4. Garapen profesionala

Ikastetxea digitalki konpetentea izateko, langileak konpetenteak izan behar dira. Beraz, norbanakoaren garapen profesionala sustatu behar da.

Teknologia digitalak aukera handiak ireki ditu irakasleen garapen profesionalerako eta ikastetxeen garapen digitalerako.

Horretarako gomendagarriak dira:

- Irakasleek barneko hausnarketa egitea eta garatzea:
Norberaren Ikas Alorra edo PLE: Personal Learning Environment.
- Maila indibidualeko ezagutzak erakunde mailara igarotzea. Hau da, ikastetxeak partekatzea ikasteko erabiltzen dituen informazio-iturriak, tresnen, jardueren, mekanismo kognitiboen eta pertsonen sareen multzoa. Horretarako egokia da garatzea:
Erakundearen Ikas Alorra edo OLE: Organization Learning Environment.

Garapen profesionalerako neurriak dira:

Ikastetxeko pertsonen Norberaren Ikas Alorra (PLEa) hobetzeko

1. Ikastetxeko pertsonen PLEa ezagutzea eta aberastea eta benetan aprobetxatzea.
2. Ikastetxeko pertsonen PLEan sar daitezkeen ikaskuntza-aukerak eskaintzea.
Hau da, Ikastetxeko OLEko parte izatera pasatzea, ez esperientzia isolatuak izatea.

3. Ikastetxeko baliabideak erabiltzea eta baliatzea, langileek beren PLEa aberastu dezaten.
Adibidez, hauen erabilera erraztea: liburutegia, WiFi sarea, sareko biltegiatzea, espazio digitala, koordinazio-espazioak eta guneak.
Baita beste baliabide batzuk ere, hala nola, tresnetako hezkuntza-kontuak, espazioetarako harpidetza instituzionalak...

OLE, Ikastetxeko Ikas Alorra hobetzeko

- Kide guztien ikuspegia bateratzea, ikastetxea definitzen eta nolakoa izan nahi duen zehazten duten oinarrizko gaiei buruz.
- Ikaskuntza-helburuak finkatzea epe labur, ertain eta luzerako.
Adibidez, kideen PLEak hobeto ezagutzea.
Oinarri horrekin, egituratu behar dira informazio eta komunikazio-fluxua eta horiekin erlazionatzeko modua.
- Aukera batzuk dira:
 - Mapaketa egitea ikastetxeko barruko eta kanpoko informazio-iturri garrantzitsuekin.
 - IKT Batzordeak edo azpitaldeak sortzea hauetan laguntzeko: eduki garrantzitsua “sendatzen” eta ikastetxerako interesgarriak diren baliabideak edo pertsonak aurkitzen.
Haien lana barne komunikazio bidez zabalduko da.
 - Ikasteko espazioak birstortzea ohiko eskola-dinamiketan.
Adibidez, iraupen laburreko topaketak, esperientzia profesionalak partekatzeko mintegiak, kanpoko adituekin tailerrak edo ikastetxean eragina izan dezaketen prestakuntza-programak...
 - Behar diren irakaskuntza giza baliabideak lortzea, inplikaturako pertsona bakoitzak PLEa eta ikaskuntzaren ingurune lan ordutegia hobetzeko.

Ikastetxearen egitekoak

- Konpetentzia digitalaren prestakuntza planifikatzen du irakasleen beharrak eta ikastetxearen antolaketa-beharren arabera.
- Prestakuntza-planak garatzen ditu, irakaskuntza-prozesuetan garatzeko teknologia digitalak erabiltzeko metodologia-ereduak eta estrategiak.
- Hezkuntza-baliabide eskuragarrien erabilera eta ezagutza errazten ditu, Ikaskuntzako Diseinu Unibertsalaren kanonen arabera (IDU).
- Erreferentziazko konpetentzia digitalaren edo irakaskuntzaren arloko batzorde bat du prestakuntza dinamizatzeko, aholkatzeko eta koordinatzeko.
- Harrera Plan Digital bat du sartu berri diren irakasleentzat.
- Ikastetxeko langile guztiek, irakasleek eta gainontzekoek, parte har dezakete prestakuntza-jardueretan.
- Ikastetxeak sustatzen ditu:
 - irakasleen gaitasun digitalari buruzko hausnarketa eta autoebaluazioa.
 - gaitasun digitalaren portfolioaren erabilera.
- Antolaketa-estrategia koordinatuak ditu ikastetxe barruan eta kanpoan prestakuntza-ekintzen hedapena dinamizatzeko eta motibatzeke.
- Ezagutza trukatzeko jarduerak edo ekitaldiak antolatzen ditu:
 - praktika onak partekatzeko.
 - irakaskuntzaren berrikuntza sustatzeko.



5. Ebaluazioa

Atal honetan lantzen da ikaskuntza-teknologiek ebaluazio eredu integratu bat garatzean duten zeregina. Eredu horrek ikasleen esperientziei eta lorpenei buruzko informazio esanguratsua eta puntuala eskaintzen du.

Hemen neurri batzuk eskaintzen dira ebaluazio eredu tradizional batetik beste praktika aukera zabalago batera mugitzeko.

Ebaluazio praktika horiek:

- ikasleengan zentratuko dira.
- pertsonalizatuak, integratuak eta esanguratsuak izango dira.
- kontuan hartuko dituzte testuinguru formal eta ez-formaletan garatutako ezagutzak, trebetasunak eta gaitasunak.

Ebaluaziorako neurriak dira:

- Ikastetxeak sustatzen du ebaluazio-tresna askotarikoak erabiltzea, ezagutzak, trebetasunak, gaitasunak eta jarrerak ebaluatzeko.
- Teknologiaren bidez ikasleei eta irakasleei berehalako itzulerako informazioa ematen duten metodologiak, teknikak eta tresnak erabiltzen dira.
- Programazioetan konpetentzia digitala ebaluatzeko irizpideak agertzen dira.
- Sustatzen dira teknologia digitalak integratzen dituzten ebaluazio-formatu digitalak:
 - errubrikak
 - ikaskuntza-helburuak
 - ikaskuntza-egunkariak...

Horretarako, ebaluazio-mota askotarikoen erabilera sustatzen da. Adibidez, ebaluazio laburtua, autoebaluazioa eta berdinen arteko ebaluazioa...

- Gaitasun digitalaren garapena sustatzeko, berdinen arteko mentorizazio-programa bat dago.

- Ikaskuntza-prozesuari buruzko gogoeta eta dokumentazioa errazten duten ikaskuntza-egunkariak erabiltzen dira.
- Ikastetxeak balioa ematen die ikasleek teknologia digitalen erabileran dituzten trebetasunei. Ikasleek gaitasunak eskuratzeko proba gisa, ikastetxeak ziurtagiri eta kredentzial digital irekiak onartzen ditu.
- Ikastetxeak teknologia digitalak aplikatzen ditu kudeaketa akademikoko prozedura nagusietan:
 - nota-buletinak
 - bertaratze-kontrola
 - ebaluazioa
 - curriculum egokitzapenak
 - orientazio-zerbitzua
 - tutoretzen kudeaketa
 - liburutegien kudeaketa
 - eskolaz kanpoko jardueren kudeaketa.
- Ikaskuntzaren analitikak izaera estrategikoa du. Hori bideratzeko, ikastetxeak praktika-kode bat ezarri du. Analitika honetan oinarritzen dira:
 - ikaskuntza prozesuak
 - kalitatearen kudeaketa
 - curriculum edo programen diseinua.
- Ikastetxeak ikaskuntza-analisiak erabiltzen ditu banakako eta taldeko ikaskuntzaren emaitzak eta antolaketa-errendimendua optimizatzeko.



6. Edukiak eta curriculumak

Ikastetxeak digitalki konpetentea izateko gai izan behar du:

- eduki digital irekiak sortzeko.
- erabilera ahalbidetuko duten dinamikak eta mekanismoak ezartzeko.

Edukien eta curriculumaren inguruko neurriak dira:

- Irakasleek material didaktiko digitalak garatzea edo egokitzea. Irakasleek kontuan hartu behar dute:
 - aniztasunarekiko arreta
 - sortutako material digitalak irisgarriak izatea.
- Irakasleek eta ikasleek Hezkuntza Baliabide Irekiak (HBI) erabiltzen, berrerabiltzen eta sortzen dituzte.
- Ikastetxeak ezarri ditu hezkuntza baliabideei buruzko politikak eta prozedurak.
- Jabetza intelektuala eta egile eskubideak errespetatzen dira.
- Sortzen edo berrerabiltzen diren baliabideei lizentzia aplikatzen zaie.
- Ikasle eta irakasleek gordailu komun partekatuak erabiltzen dituzte.
- Baliabide biltegiak erabiltzen dira modu zabalean eta eraginkorrean.
- Diziplina-arteak ere integratuagoak ezartzen dira. Horrela irakasleak eta ikasleak animatzen ditu eduki espezifikoak sortzera eta kontsumitzera.
- Programazioetan konpetentzia digitala aipatzen da:
 - jardueren baliabide digitalak
 - webguneak
 - plataformak
 - konpetentzia digitala ebaluatzeko irizpideak
 - sormen eta lankidetzaren alderdiak, ikasleek teknologia digitalak erabiltzeko jardueretan.



7. Lankidetza eta networking

Gaitasun digitalak sustatzen du:

- ikastetxearen barruan ezagutza komuna eraikitzea.
- kanpoko eragileek egin ditzaketen ekarpenetara irekitzea ere.

Sareko lanak, baliabideak bateratzeak eta lankidetzak ikastetxeentzat garrantzi handia dute eta baloratu behar ditugu.

Lankidetza eta networkingaren inguruko neurriak dira:

- Klaustroak koordinatzaile edo batzorde bat du proiektu berritzaileen ezarpena dinamizatzeko eta hedatzeko.
- Harrera plan bat dago sartzen diren irakasle berrientzat Horrela sustatzen dira konpetentzia digitala hobetzea eta teknologia digitalak erabiltzea.
Ikasleek, irakasleek eta familek web-aplikazio baten bidez lor ditzakete harrerari, tutoretzari eta orientazioari buruzko dokumentazioa.
- Irakasleak sartzen dira eta parte hartzen dute:
 - hezkuntza-sareetan
 - atari eta komunitate profesionaletan.
- Ikastetxeak jarduerak eta ekitaldiak antolatzen ditu irakaskuntza-berrikuntza bultzatzeko ezagutzei buruz.
- Ikastetxearen urteko planak eta prestakuntza-planak aurreikusten dituzte berrikuntza metodologikora bideratutako ekintzak, IKTen laguntzarekin.
- Ikastetxeak komunikazio-estrategia esplizitua landu eta garatzen du. Horretarako, ikastetxeak ditu:
 - azpiegitura teknologikoak
 - Interneteko edo intraneteko zerbitzuak
 - hezkuntza-komunitatearen arteko komunikazio eta elkar-eragitea.

Adibidez, mezu elektronikoak, mahaigainak, gela birtualak, sare sozialak...

- Teknologia integratuak ditu hezkuntza eta administrazio-zerbitzuen erabiltzaileei eskaintzeko.
- Hezkuntza-komunitatearekin eta beste erakunde batzuekin komunikatzeko erabiltzen dira web-aplikazioak, agenda digitala eta sare sozialak.
Baita bi norabideko komunikazioa ere: erabiltzaileen iruzkin, erreklamazio, iradokizun eta ekarpenak ahalbidetzen dira.
- Teknologia modu planifikatu, egituratu eta sistematikoan erabiltzen dira.

Teknologia bideratzen da:

- ingurune pertsonaletara: gailu mugikorrak eta etxekoak...
- hezkuntza-interakziora: aurrez aurrekoa, aurrez aurrekoa ez dena, etengabea...
- Interneten eduki eta jarduera digitalek erreferentziazko lekua dute tutoretzari eta orientazioari laguntzeko.
Leku honetan ikasleak eta familiak ere sartzen dira.
- Ikastetxeak berrikuntza-proiektuetan parte hartzen du beste ikastetxe, erakunde edo enpresa batzuekin.
- Prestakuntza-ekintzak egiten dira familien kompetentzia digitala garatzeko.
Ikasleen eta familien eskura jartzen dira Internetera sarbidea duten instalazioak eta baliabideak eta bulegotika-tresnak.
- Ikastetxeak inguruko erakunde publiko edo pribatuekin lankidetzara sarea garatu du ikasleen ikaskuntza errealitatearekin lotzeko.
Adibidez, museoak, elkarteak, fundazioak, GKEak...

2. eranskina:

Ikastetxearen Proiektu Digitala idazteko txantiloia

Dokumentu honetan agertzen den eredua orientabidea da.

Txantiloia bezala erabili daiteke plangintza Word formatu honetan egiteko edo beste edozein plataformetan argitaratzeko.

Adibidez, web orri, sites, beste dokumentu mota bat...


Aurkibidea



1. Sarrera


- **Ikastetxearen testuingurua**

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...




- **Azpiegiturak**

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa,
konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...



- **Proiektuaren justifikazioa**

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari
eta zergatik parte hartzen da.




- **Elaborazio prozesua eta lan-taldea**


Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio mailazehaztu.

Nor izango da eragilea.




- **Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari
eta Urteko Planari egiten dion ekarpena.**





2. Ikastetxearen egoeraren analisia

- **Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa. SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.**



- **AMIA analisia**

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

FAKTORE POSITIBOAK	BARNE-FAKTOREAK		FAKTORE NEGATIBOAK
	Indarguneak	Ahuleziak	
	1.	1.	
	2.	2.	
	3.	3.	
	...	...	
	Aukerak	Mehatxuak	
	1.	1.	
	2.	2.	
	3.	3.	
...	...		
KANPO-FAKTOREAK			

- **Autoebaluazioaren ondorioak**

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu **aukerak** areagotzeko

Ahuleziei aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko

Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

Ahuleziei eta **mehatxuei** aurre egin



3. Helburuak

- **Proiektuaren helburuak**

Hausnarketaren ondorioz.

Helburu zehatzak, neurgarriak, eskuragarriak, errealistak eta denboran zehaztuak.

Helburuak	Adierazleak	Lortzeko epea
1. helburua		
2. helburua		
3. helburua		
...		



4. Ekintzak

- **Helburuak lortzeko ekintzak**

Helburuak lortzeko ekintzak definitu, giza baliabideak,

material-baliabideak, baliabide ekonomikoak eta arduradunak.

Hurrengo orriko taula erabil daiteke datu hauek guztiak idazteko.



5. Ekintzen eta epeen denboralizazioa

- **Ekintzaren lorpen-maila:** zenbakietan jarri.
- **Epeak:** ekintzak burutzeko.

1. HELBURUA				Ekintza lortu da			
Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epeak	1. Antzemandako ekintza baina definitu gabea	2. Definitutako ekintza, baina hasi gabea	3. Garatzen ari den ekintza	4. Lortutako ekintza
1.1.							
1.2.							
1.3.							
2.1.							
2.2.							
2.3.							



Ikastetxeko Proiektu Digitala noiz, nola, nork eta zer hobekuntza proposamen zehaztu behar da. Proiektuaren epemuga amaitzen denean horrelako taula erabiliko dugu.

[illegible]

